



## ZUMALAKARREGI FAMILIA TXARTELA

### ZUMALAKARREGIKO FAMILIEK ABANTAILA DUTE!

**Familia Txartela** Museoa eta herritarren artean, bereziki familien artean, hurbiltasun harremana sortzea helburu duen tresna da. **Zumalakarregi kultur espazio aktibo eta irisgarri** bihurtzen duten abantaila sorta bat eskainiz.

Ondarearekiko gertutasuna lantzeko ikuspegi eta lengoia ezberdinak erabiltzen dira Museoko Hezkuntza Egitasmo honetan, eta esparru honen barruan kokatzen da Familia Txartela. Ikuspegi eta lengoia desberdin hauek ingurune, natura, kultura, gizartea, etab.ekin harremanetan jartzeko modu berriak eskaintzen dituzte.

### ZE ABANTAILEZ GOZA DEZAKEZU?

Zumalakarregi Familia Txartelarekin abantaila askoz goza dezakezu eta kolektiboa izatea nahi dugun egitasmo bateko partaide izan zaitzke. Zure ideiak eta iradokizunak asmatzen laguntzen gaituzte!

- Zatoz Foru Aldundiko Museoetara: Igartubeiti Baserri Museora, Zumalakarregi Museora eta Untzi Museora, nahi duzun oro DOAN!
- Antolatzen diren jardueren berri izango duzu hiruhilabetero eta lehentasuna izango duzu hauetan parte hartzeko.

- Familientzako bereziki sortutako jardueraz gozatzeko aukera.
- Museoko dendako produktuetan % 7ko deskontua. Abantaila honetaz ere baliatu zaitezke Igartubeiti Baserri Museoko dendan ere.
- Gonbidatu zure lagun bat Zumalakarregiko tailerretan parte hartzera! 2x1 Sarrera (Baita Igartubeiti eta Untzi Museoan ere)
- Ospatu museoan zure urtebetetze festa. Tailerrak nahieran prezio berezietan.
- Promozio eta lehiaketa berezietan parte hartzea.
- Foru Aldundiko Museoak bisita gidatuarekin ezagutzeko bonu bateratu batez gozatu. (Bonoaren prezioa: 7 euro, Familia Txartelarekin: 5 euro).
- Deskontuak Zumalakarregi Museoko familia tailerretan.
- Zumalakarregi inguruko jatetxeetan deskontuak.
  - Salbatoreh! : %10eko deskontua familia guztiarentzat, urtean behin.
  - Itxune: %10eko deskontua haurren menuetan, nahi bestetan.
- Ongietorri opari bat familia bakoitzari (Zumalakarregi Museoko motxila), eta urtean zehar opari gehiago.

## NOLA LORTU DEZAKET TXARTELA?

Modu ezberdinez lor dezakezu:

- Formularioa on-line bidali eta zurekin harremanetan ipiniko gara txartela jasotzera etortzeko Zumalakarregi Museoan.
- Osatu formularioa Museoan eta bertan eskura eman.

Bi kasuetan, txartela museoan jaso ahal izango duzu.

## TXARTELA FAMILIAKO BESTE KIDEREN BATEK, LAGUNEN BATEK ERABIL DEZAKE?

Txartela ez da transferigarria. Bi jabe izan ditzake, aita, ama edo/eta tutorea eta gehitu nahi dituzun dagozkizun seme alaba guztiak.

#### ZE KOSTU DAUKA?

Famili Txartelak famili bakoitzeko 5 eurotako kostea du eta urtero berritzen da. Ekarpen sinboliko honekin egitasmo honi eta bere jarduera guztiei babesa eskaintzen diezu.

#### ZE IRAUPEN DU, IRAUNGITZE DATARIK BA AL DU?

Txartelak 5 euroko kostua eta urtebeteko iraunaldia du. Ondoren Zumalakarregiko famili lagunen arteko kide izaten jarraitu nahi baduzu zure konpromisoa berritu behar duzu, guk zurekin horrela egingo dugu, urtez-urte hobetuz!

Txartela berritzeko museoko harreran ordaindu dezakezu.

#### ZALANTZARIK BA AL DUZU?

Edozein zalantzatarako ipini gurekin harremanetan, deitu 943 88 99 00 telefonora edo bidali maila zumalakarregi@gipuzkoa.eus-era. Pertsonalki ere oso gustura hartuko zaitugu.